

**PREMIOS DENON ARTEAN SARIAK**

2018-07-05 Donostia-San Sebastián 05-07-2018

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Zaudeten herri agintariok guztion izenean, Legebiltzar buru andrea agurtuz, herri gizataldeetako ordezkariok, Kooperatiben Konfederazioaren ordezkariok, jaun andreok, egun on eta eskerrik asko zuen gonbidapenagatik eta zorionak “Denon Artean Saria” abian jartzeko hartu duzuen erabakiagatik.

Lehen saria da eta, “in memoriam”, Joxe Maria Arizmendiari omentzea eta aitortzea erabaki duzue. Ez dago hastapen hoberik.

Euskadin ondo ezagutzen dugu bere ekarpenaren fruitua baina, horrekin batera, argi dago berari esker Euskadiko kooperatibak erreferentzia bat direla mundu zabalean. Eredu propio bat sortu duzue:

- Pertsona eta lankidetzaren oinarri hartuta;
- Kooperatiban sinesten duena; eta
- Gizartearen eraldaketaren aldekoa.

Este modelo cooperativo tiene como centro a la persona. Promueve los valores de la solidaridad y la igualdad. Apuesta por el trabajo en común y la participación. Es un modelo que demuestra, además, su compromiso con la transformación social de nuestro País.

En el Día internacional de las cooperativas es oportuno recordar que Naciones Unidas ha reconocido el valor y los valores de este modelo cooperativo. Ha planteado además la conveniencia y el objetivo de extender este modelo socio-económico en todo el mundo.

Entiendo la empresa en general, y la cooperativa en particular, como un patrimonio común y valoro el esfuerzo que se realiza desde las cooperativas para impulsar los valores de la responsabilidad, equidad, igualdad y solidaridad.

El “Premio Denon Artean” reconoce y contribuye a extender este ideario del mundo cooperativo. Agradezco la puesta en marcha de esta iniciativa porque promueve un modelo que entronca con el concepto de “auzolana” que impulsamos desde el Gobierno Vasco, esto es trabajar juntos en pos del bien común.

Este Premio y su primer reconocimiento a la figura de José María Arizmendiarieta, de quien recupero el tesón para convertir los sueños en realidad, contribuye con un doble objetivo de nuestro Gobierno:

- fomentar la formación y preparación integral de las personas, garantizando la igualdad; y
- favorecer la integración laboral de la juventud para avanzar en una sociedad más justa.

Agradezco esta iniciativa porque sabemos que este doble objetivo, central para nuestro País, solo lo podremos conseguir trabajando juntos, denon artean.

Facilitar por lo tanto, la competitividad en base a lo que el Padre Jose María Arizmendiarieta perseguía: la cualificación, la formación y la participación de los trabajadores en la empresa.

Jose Maria Arizmendiarietak enpresaren kontzeptu berritzailea irudikatu zuen, horretan pertsona aitzindaria izan zen, inkonformista, berak esaten zuen bezala “ez gaude gauzak ikusteko, eraldatzeko baizik.”

Hori da Sari hauen xedea, denon artean, eguneroko konpromisoaren bidez, gauzak eraldatzen laguntzea, gure gizartea hobetzen jarraitzea.

Bukatzeko, Arizmendiarietaren nahia zen “ametsak egia bihurtzea.” Sari honekin bere beste amets bat betetzen da. Pozik ikusiko luke “kooperazioa”, “elkarlana”, “lankidetzeta”, “auzolana” eta orain “denon artean” ideiak jorratzen eta zabaltzen ditugula. Berak ereindako haziak fruitua ematen jarraitzen duela.

Beraz, eskerrik asko denoi, ibilbide honetan aurrera egiteagatik. Zorionak.